



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2022ko EKAINAREN 21ean EGINDAKO
EZOHIKO UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO
DE LA CORPORACIÓN. Día 21 de JUNIO de
2022 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Purificacion Regidor Varela
Eluska Irazu Henández
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Nestor Arana
Leire San Vicente

Idazkari akzidentala

M^a Pilar Biain Cortabarría

Eskoriatzan, 2022ko ekainaren 21ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ezohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Ander Errarte.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 21 de junio de 2022, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Ander Errarte del Pozo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAC6HNT.uCxq>

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO – UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA – AKORDIOAREN ALDEKO ATXIKIMENDUA.

Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzailean aho batez onarturiko diktamenta aurkezten da.

DIKTAMENA

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak “Gure mundua eraldatu: garapen jasangarrirako 2030 Agenda” dokumentua onartu zuen 2015ean, hau da, “pertsonek, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat”. 2030 Agendak zuzenean eskatzen die tokikogobernuei agenda modu egokian ezarri dezatela eta beraren Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) eta helmugak bete ditzatela. Tokiko eskumenei estu lotuta, 2030 Agendak exijitzen du tokiko politika eta kudeaketa bestelako modu batean egin daitezela, legegintzaldia bera gainditzen duen epe luzerako ikuspegi estrategiko batez, ambizioz eta eraldatzeko nahiaz jokatzuz, ikuspegi hori ekonomia, gizarte eta ingurumenaren alor guztietan hedatuz.

2018ko apirilaren 11n, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu zuen, eta hortik abiatuta hainbat ekimen hedatu dira Euskadiko eragile sozial, ekonomiko eta administratiboak inplikatzeke. Horretarako Udalsarea 2030- udalerrri Jasangarriaren Euskal Sarea sortu zuen.

Tokiko gobernantzaren euskal eredu berri horrek ahalbidetuko du inplikazio politikoa eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa biziberritzea, sailen arteko zeharkakotasuna eta izaera estrategikoagoa duen lan-plan bat indartzea, gizartearen parte-hartzerako hizkuntza berri bat sortzea, komunikazio eraginkorragoa lortzea eta finantziatorako aukerak areagotzea. Akordio honen xedea da tokiko jasangarritasuna Udalsarea 2030 – Udalerrri Jasangarriaren Euskal Sarearen bidez Euskadin bultzatzera zuzendutako kooperazio- eta lankidetzaren esparrua ezartzea. Horri begira, Tokiko 2030 Agendaren aldeko konpromisoaren eta beraren ezarpen, garapen eta jarraipenaren alde egiten duten Administrazio publikoen arteko harremanak arautzen dira, helburu honekin: 2030 Agendaren bidez tokiko ekintza jasangarria sustatzea dokumentu honi atxikitzen zaizkion tokiko euskal erakundeetan (Udalak eta Eskualde erakundeak). Horretarako akordioan bertan zehazten diren konpromisoak bereganatu beharko dituzte eta adierazitako eginkizunak bete.

Akordio hau beraren lehenengo atxikimendua balioztatzen den egunean sartuko da indarrean eta 4 urteko indarraldia izango du.

Hau dana kontutan izanda, ondorengo proposatzen dio Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak udalbatzari:

Bat. Udalsarea 2030 – Udalerrri Jasangarriaren Euskal Sarearen bidez Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda bultzatzeko akordioa sina dezala (eranskin gisa atxikituta).

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Alkatea: Hirigintza eta ingurumen batzordetik datorren gaia da, bertaraturiko guztiek aho batez onartua, BILDUK eta EAJK, baina, kontuan harturik alderdi politiko bat batzordean ez zela egon, atxikimendua onartzea proposatu zaio udalbatzari.

Josu: sare bat osatzeko da, eta aurrerapauso bat gehiago jasangarritasunean, hainbat udaletako proiektuarekin bat egingo dugu, atxikimendua da eta hainbat proposamen eta proiektu berri garatzea suposatuko du, bi arduradun izendatu behar dira, politikoa eta teknikoa. Batzordean proposatu dute arduradun politikoa batzordeburua izatea, Josu Ezkurdia Santa Maria, eta, arduradun teknikoa, Saioia Alzua Galparsoro.

Nestor: gu ere ados ginen, ingurumeneko teknikaria aipatzerakoan, lan karga handia dagoela aipatu zen lehen ere, lanpostu bat behar zela museoan, eta kontsulta egin zen ea bultzatuko zen gai hori bai Hezkuntza bai Kultura sailekin, ez dakit zerbait egiterik izan duzuen.

Josu: lehen ere aipatu zen lan karga hori Hezkuntza Sailaren proiektu batetik datorrela, Udala gero eta gehiago inplikatu zen eta, gaur egun, Hezkuntza Sailak ez du proiektu hori babesten aurrera begira, eta Udalak ez du garbi ikusten karga guztia hartu behar duen edo ez, Udala bezala egin beharreko erreflexio bat da, hemen egin da eta guk oraindik ez dugu egin, eta hurrengo pausua erabakia hartzea izango da, erreflexio egin eta denon artean erabakitzea.

Nestor: gure proposamena da Kultura eta Hezkuntza sailekin egotea, ea nola ikusten duten gai hori jakiteko.

Josu: ez, ez gara egon, baina dakigun arte ez dute asmorik beste pertsona bat izendatzeko lanpostu horretarako, guk ere hausnarketa egin beharko dugu beraiekin egon aurretik, ea proiektu horrekin jarraitu edo ez, beste proiektu garrantzitsuagoak daude eta baliabideak mugatuak dira, ez gara Hezkuntza Sailarekin egon, eta ez gara egon behar.

Alkatea: maiatzeko osoko bilkuran onarturiko egonkortze prozesuaren barruan ingurumen teknikari plaza onartu zen. Berez, ingurumen teknikaria badugu, eta uste dut guk hemen mahai gainean dugun gaiarekin bat datorrela. Beste gauza bat da museoaren barruan Hezkuntza Sailaren proiektu pedagogiko bat dagoela, eta hor Hezkuntza Sailak zeresan handia du, horretarako liberaturik duen langileak proiektu hori garatzen zuen eta udal ingurumen teknikariak horretan laguntzen zuen. Kontua da aurten lanaldi osoan eta hurrengo urtean lanaldi erdian kontratatuko duela Hezkuntza Sailak, eta hortik aurrera ez duela pertsonarik kontratatuko. Gure aldetik, 2022ko abenduaren 31 baino lehen zehaztuko dugu ingurumen teknikariaren hautaketa prozesua, eta bi urteko epean teknikaria izendatuta egongo da.

Nestor: guztiz ados gaude, hor gai garrantzitsu bat dago, lan karga handia dago, konpromisoa izango dugu trantsizio energetikorako plan bat egiteko, ikusi beharko da zein ekintza lehenetsi behar diren, lanpostu hori oso garrantzitsua da. Museoko ekimen horri garrantzia eman behar zaio, lehenetsi behar da. Horregatik, naiz eta Kulturak eta Hezkuntzak baliabiderik ez jarri, jakin ea ontzat ematen duten lanpostu hori, ikusteko bien artean zein alternatiba aurkitu daitekeen.

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Alkatea: nahasten ari gara, Kultura Sailak ez du museoko liberatu honen berri, ez daki ezer, liberatua Hezkuntza Sailekoa izan da. Liberatua barne antolaketatik at egon da. Teorikoki, historiako gaiekin, eta Eskoriatzako museoak bere garapenean izan duen nondik norakoaz, eta, berez, haur hezkuntzan ez da gai hau lantzen, Hezkuntza Sailak onartu du liberazio hori, eta Kultura Sailak jakin ere ez, pertsona horren liberazioa Hezkuntza Sailak erabaki behar du, ez da kultura teknikari bat, baizik Hezkuntza Saileko proiektu pedagogikoarekin, museoaren garapenarekin lotuta, zerikusia duena, beraz, kontzeptuak bereiztu behar ditugu: ingurumen teknikaria, udaletxeko proiektuak garatzeko, eta Hezkuntza Sailak liberatzen duen langilea, 2022an egun osoz eta 2023an lanaldi erdian. Kontu bat da guk zer nahiko genukeena, eta, beste bat, ze pertsonal baliabide dauzkagun.

Nestor: ez dut uste konfunditzen ari naizenik, proposamen bat egiten ari naiz, bere garaian esandakoa, kultur ondare bat dago eta aukera bat izango litzateke kultura eta hezkuntza ikuspegitik uztartzea eta elkarlanean noraino lan egin dezakegun ikustea.

Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzordearen proposamenarekin bat etorriz, guztiek alde bozkatuta onartu da honako hau:

Lehenengoa: Udalsarea 2030–Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen bidez Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda bultzatzeko akordioari atxikitzea, eta alkatea izendatzea akordio hau sinatzeko.

Bigarrena: Arduradun politikoa Josu Ezkurdia Santa Maria izendatzea, eta, arduradun teknikoa, Saioa Alzua Galparsoro.

2.- 16/2022 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Kredituak aldatzeko 16. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaitzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharrezko eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzaitzak egindako txostena ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 16. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera:

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0300.480.231.30.01 2022	DIRU LAGUNTZA:LARRIALDI PLANA	65.000,00	15.000,00	80.000,00
1 0400.214.330.00.01 2022	MANTENIMENDUA:KULTURAK O ESZENATOKIA	0,00	4.000,00	4.000,00
1 0100.622.337.10.02 2022	JUBILATUEN TABERNA:HEZETASUNA	15.000,00	40.176,19	55.176,19
1 0200.226.920.00.99 2022	BESTELAKO GASTUAK:ADMO.OROKORRA	4.000,00	5.000,00	9.000,00
1 0200.227.920.00.07 2022	AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK:ADM.OROK	6.570,00	12.800,00	19.370,00
1 0100.210.153.20.01 2022	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOEN ZOL	10.000,00	20.000,00	30.000,00
GUZTIRA		100.570,00	96.976,19	197.546,19

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2022	DIRUZAINZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR	96.976,19
FINANTZAKETA GUZTIRA			96.976,19



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

3.- 2023. URTERAKO TOKIKO JAI EGUNA

2023rako tokiko jaieguna ekainaren 29a izateko Alkatetzak egindako proposamena berrestea erabaki da aho batez.

4.- ERAKUNDE ADIERAZPENA: GIPUZKOA EMAKUMEEN AURKAKO SEXU INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO JAIEN ALDE

Alkateak adierazi du Gipuzkoako udaletako ordezkariak Donostian elkartu zirela emakumeen aurkako sexu indarkeriaren aurka eta jarrera matxistarik gabeko jaien aldeko adierazpena egiteko, eta bertan udaletako teknikari eta politikoeekin adosturiko adierazpena irakurri zela.

Ondoren, adierazpenaren testua irakurri du Alkateak.

Adierazpen instituzionala izateko udal talde guztien atxikimendua beharrezkoa da. Adierazpen instituzionalaren testua talde guztiei banatu zitzaizen eta talde bakarrak erantzun du, EAJK. Alkateak hitza eman die gainontzeko taldeei.

Leire: gaia aurkezteko esparrua udalbatzarra zela ulertzen nuen, eta aurrez ez nuen erantzunik eman, baina Elizateak bat egiten dugu adierazpenarekin.

Josu: guk bat egiten dugu adierazpenarekin. Alde batetik, ados gaude testuarekin, eta oso garrantzitsua da ere Gipuzkoa mailan landu dela, eta udaletako alkateek onartu dutela alderdietako ideologiak kanpo utzita. Eta, bestetik, testua oso garrantzitsua da, baita landu den modua ere, arazo honi aurre egiteko.

Nestor: Udalbatzarrean aurkeztuko zela adierazi zenez, ez dugu erantzun. Dokumentuan ez zen erantzunik eskatzen. Prozedurari buruz kontsulta egin dut eta adierazpen instituzionala lehenengo bertan onartu behar da, bozketa eginda, gai zerrendan sartzen den ala ez, aurretik ez bada kontsultarik egin batzordetan. Hori horrela da? ROMean agertzen da.

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Idazkaria: ez

Nestor: prozeduran agertzen da horrela dela, eta batzordean ez bada tratatu batzarrean bozketa simple batekin puntu hori sartuko litzateke gai zerrendan.

Alkatea: adierazpen instituzionala alkateak eskatu dezake bozeramaile bakoitzari bere iritzia eskatuta, eta iritzietan adostasuna balego adierazi daiteke adierazpen instituzional bezala; aurkako kasuan, berriz, alderdi baten mozioa izango litzateke. Adierazpena alkatetzatik edo talde batetik etor daiteke; kasu honetan, adierazpen honen bultzatzailea alkatetza da.

Josu: prozedura kontua bada, ez dut ikusten arrazoirik bi bozketa egiteko; konponbidea bada, bi bozketa egingo ditugu.

Nestor: gauza bat da prozedura eta, bestea, herriko eragileekin kontrastatzea; eskertuko nuke eragileei hitza ematea, horietako hainbat hemen daudenak hitz egiteko prest. Adierazpena osorik irakurri da, badira hainbat martxoak 8koak ere irakurri direnak, eta zoriontzea nahiko nuke gaur ere irakurri delako.

Josu: bozkatuko dugu puntua gai zerrendan sartzea?

Alkatea: nik ez dut zalantzarik, baina lehenengo bozkatuko dugu; eta herritarren parte hartzean gogoratu nahi dut ezohiko udalbatzarra dela eta ezingo litzatekeela, baina, beste batzuetan egin bezala, hitza emango da.

Lehenengo, gaia zerrendan sartzea bozkatu da, eta aho batez onartu da. Bigarren bozketa bat egin da, adierazpen bezala onartzeko: EAJ eta ELIZATEAK taldeek alde bozkatu dute, eta BILDU abstenitu egin da. Beraz, ezin da onartu adierazpen instituzional bezala.

Alkateak herritarrei eman die hitza:

Asociacion Guerreras Alto Deba (AGAD): feminista gazteekin eta Eskoriatzako feministekin elkartu gara eta puntu hau interesgarria iruditu zaigu eta ondorengo ekarpenak egin nahi ditugu:

- Puntu morea sanpedroetako jaietako programan: puntu morea zerbitzurik ez da egongo egun batzuetan jai programaren arabera, puntu morearen ordutegia ere arraroa da, ia kontzertu guztiak 22:00etatik aurrera hasten direlako. Udalaren jarduera modua zalantzan jartzen dugu: zer egin behar du puntu morearen ordutegitik kanpo erasoren bat baldin badago? 24 orduko telefono zerbitzurik ba al dago?

- Berdintasun teknikaria kontratatze beharra ikusten dugu.

- Udalak genero indarkerian prestakuntza ematen ari da edo emango die agente publikoei?

Eskoriatzako Talde Femenista (ETF): AGADekin eta Eskoriatzako Feminista gazteekin elkartu gara. Gai hau ez da jaietara mugatzekoa, adierazpen instituzional bezala ondo dago, baina Eskoriatzaren kasuan, urte osoan lantzeko gaia da. Proposamen bat lantzea gustatuko litzazuke: Aretxabaletan bezala berdintasun teknikari bat izatea gaia esparru guztietan landu ahal izateko eragile guztiekin: hezkuntza, gaztelekua,...



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Adierazpenean hainbat puntu agertzen dira eta jakin gurako genuke konpromiso horiek lantzeko zein baliabide dituen Udalak, ze asmo dituen.

Jaiei dagokionez, puntu lilaren helburua zein da? Ordutegiaz aparte, ze baliabide jarriko dira? telefono bat? Protokolo hori nola landu da? zabaldu da? non egongo da ikusgai? Neska feminista gazteak txosnetan protokolo bat egin dute, puntu morearena ez da landu horrekin batera, baina aurrera begira komenigarria ikusten da talde hauekin kontaktzea horretarako.

Gaia garrantzitsua da eta partekatu beharko litzateke gaiarekiko sentsibilitatea erakutsi duten eta gaia lantzen ari diren herriko eragileekin.

Josu: proposamenak onartzen ditugu, zuek ezagutzen dituzue arazoak bertatik bertara, guk gaiak landuta ekartzen ditugu Udalbatzarrera, arloetako batzordeetan lantzen ditugu. Hori esanda, jaietako programan jasotzen den puntu morea ez dago oso argi edo gauzak zehaztea falta da. Jaien aurretik batzorde informatzailea dago, eta bertan komentatuko da zenbait alderdi zehazteko.

Alkatea: lehenengo, ez da izango adierazpen instituzionala, Udalak ez du jarrera instituzionalik hartuko. Bi alderdik adierazpenaren alde bozkatu dute eta beste talde bat abstenitu egin da. Bigarren, jaiak antolatzeke batzorde ireki bat antolatzen da, proposamen guztiak lantzen dira eta proposamen gehienak gauzatzen saiatzen da, jai programan daudenak batzorde horretan landutakoak dira. Ordutegiari dagokionez, teknikarien arteko adostasuna izan da. Zabalkundeari dagokionean, prentsa oharrez, jai programan, etxeetan banatutako programan, iragarri da. Telefonoari dagokionean, hogeitalau ordutan zerbitzua ematen duen telefonoa azaltzen da. Eskoriatzako Udalak dituen baliabideak ditu, baina telefono hau 24 ordutan dago. Jaietako programan azaltzen diren ekintza guztiak batzordean landu dira.

ETF: puntu morearen gaia jaietara mugatzearena ez da gure helburua, urte osoan landu beharrekoa da batzordetan; eragileak prest egongo lirateke beste batzordeetara joateko. Gazteek egin duten protokoloa jaietarako da, baina gero ere balio dezake aurrera begira. Gai hau teknikari batek lantzea gustatuko litzazuke, ez dago pertsonal baliabiderik, prebentzio teknikaria dago, ez du prestakuntzarik genero gaietan.

AGAD: gu hogeita lau orduz gaude arreta ematen biktimei, astean biktima bat laguntzen dugu, Eskoriatzan ere kasuak daude, biktimek momentuan laguntza jasotzea gura dute, nahiz eta gero 112 deitu. Era berean, galdetu nahi dugu puntu morean egongo den pertsona prestatuta egongo den biktimei laguntza emateko.

Alkatea: puntu more horretan egongo den pertsonak prestakuntza izango duen zergatik galdetzen duzue? Puntu morearen ordutegi murrizta zalantzan jartzea ulertzen dut, baina teknikarien prestakuntzari buruz zalantza azaltzea ez dut ulertzen, puntu lila udal teknikariaren eta puntu moreko teknikarien artean adostu da. Puntu moreko teknikariak prestakuntza izango duela ulertzen da.

AGAD: galdera bat izan da, gune seguru bat izan behar du eta bertan dagoen pertsonak prestakuntza izan behar du. Jaietako programan azaltzen den puntu morea urria da.

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Bakarrik galdetzen dugu ea puntu morearen gunean egongo den pertsona enpresa espezializatu batekoa ote den. Gune segurua bi ordutarako kontratatzen da, eta kontzertu guztiak gaueko hamarretatik aurrera hasten dira.

Maite Uribe: puntu morean egongo den pertsona generoan prestatuta egongo dela ulertzen dugu, ez da Eskoriatzako kontua, beste herri batzuetan ere kontratatzen da, eta ulertzen dugu puntu morean dauden teknikariak prestakuntza dutela, ez dugu zalantzan jartzen.

AGAD: lehenengo hori jakin behar dugu: puntu morean egongo den pertsona prestatuta dagoen biktima bat artatzeko. Guk badakigu Arrasaten puntu morean egongo diren pertsonak nortzuk izango diren, formakuntza duten pertsonak dira, enpresa espezializatua da, bakarrik hori jakin nahi dugu. Oso urria iruditzen zaigu gune seguruaren ordutegia. Gainera ekainaren 29an kontzertuak daude, eta ez dago puntu more gunerik. Biktima izan garenok beste sentsibilitate bat dugu, momentuan laguntza egokia jasotzek duen garrantzia biktima izan garenok ulertzen dugu, horregatik azpimarratzen dugu puntu moreko teknikarien prestakuntza, Ertzantza ere ez baitago prestatuta.

Josu: lehenengo, gure tristura adierazi, ez gara adierazpen instituzionala onartzeko gai izan; bigarren, oso garrantzitsuak dira egindako ekarpenak, batzordeetan lan egiten dugu, orain jasotako ekarpenak batzordeetan landuko dira gure teknikariek eta beste erakunde batzuetakoek egindakoekin.

Nestor Arana: argitze aldera, gure abstentzioaren arrazoia izan da eztabaida bera hau delako, zuk adierazi du gaiak komisioretan lantzen direla, baina, kasualitatez hau ez, eta prozedura aldetik ondo egin den ere eskatuko da, izan ere, gaiak lanketa bat behar du gurekin, eta garbi dago hemen dauden taldeak oso sentsibilizatuta daudela eta beraiekin kontatu behar dela, ni ez nintzake tristezia sentimendu horrekin geratuko, lanketa bat egiteko dago eta ea datorren martxoak zortzirako lanketa egiten den, martxoak zortzian testu bat irakurri eta ekintzak antolatu, ez dugu nahi baietz esaterik edukirik gabeko mezu orokor bati.

AGAD: adierazpen instituzionalarena ondo dago, baina datuak gaia oso serioa dela adierazten dute, adierazpen hori eta beste guztiak nolabait gauzatzea nahi dugu: generoan prestakuntza duen teknikari bat izatea generoaren gaia urte osoan zehar lantzeko.

Alkateak herritarrei eskerrak emanez bukatu du.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:45ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- ADHESION AL ACUERDO PARA EL IMPULSO DE LA ACCION LOCAL SOSTENIBLE Y LA AGENDA 2030 LOCAL EN EUSKADI. RENOVACION DE UDALSAREA 2030, REDVASCA DE MUNICIPIOS SOSTENIBLES .

Se presenta el dictamen aprobado por unanimidad por la comisión informativa de Urbanismo, Movilidad y Medio ambiente.

DICTAMEN

La Asamblea General de Naciones Unidas aprobó en 2015 el documento “Transformar nuestro mundo: Agenda 2030 para el desarrollo sostenible”, esto es, “un plan de acción a favor de las personas, del planeta y de la prosperidad”. La Agenda 2030 les pide directamente a los gobiernos locales que implante de modo adecuado la Agenda y que cumplan los objetivos y metas de su desarrollo sostenible (ODS). En estrecha relación con las competencias locales, la Agenda 2030 exige que la política y gestión local se haga de otra manera, con una visión estratégica a largo plazo que supere la legislatura, y actuando con ambición y deseo de transformación, difundiendo esta visión en todos los ámbitos económicos, sociales y ambientales. El 11 de abril de 2018 el Gobierno Vasco aprobó la Agenda Euskadi Basque Country 2030, a partir de la cual se han desplegado diferentes iniciativas para implicar a los agentes sociales, económicos y administrativos de Euskadi. Para ello, creo Udalsarea 2030- Red de Municipios Sostenibles del País Vasco.

Este nuevo modelo vasco de gobernanza local permitirá la implicación política y la revitalización del compromiso con el desarrollo sostenible, la transversalidad interdepartamental y reforzar un plan de trabajo de carácter más estratégico, crear un nuevo lenguaje de participación social, lograr una comunicación más eficaz y aumentar las posibilidades de financiación.

El presente acuerdo tiene por objeto implementar un marco de cooperación y colaboración dirigido a impulsar en Euskadi la sostenibilidad local mediante Udalsarea 2030 —Red Vasca de municipios sostenibles. En este sentido, se regulan las relaciones entre las administraciones públicas que están a favor del compromiso con la Agenda Local 2030 y su implantación, desarrollo y seguimiento, con el objetivo de promover la acción local sostenible a través de la Agenda 2030 en las entidades locales vascas adheridas a este documento (ayuntamientos e instituciones comarcales). Para ello se deberán asumir los compromisos que se especifican en el propio acuerdo y cumplir las tareas indicadas.

El presente acuerdo entrará en vigor el día en que se valide la primera adhesión al mismo, y tendrá una vigencia de 4 años.

Teniendo en cuenta todo ello, la comisión informativa de Urbanismo, Movilidad y Medio Ambiente eleva la siguiente propuesta al Pleno del Ayuntamiento:

Uno.- Adherirse al acuerdo para el impulso de la acción local sostenible mediante Udalsarea 2030 —Red Vasca de municipios sostenibles— y de la Agenda Local 2030 (se adjunta como anexo)

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Alcalde: es un tema que viene de la comisión de urbanismo y medio ambiente, aprobado por unanimidad de todos los asistentes, por BILDU y PNV, pero teniendo en cuenta que un partido político no estuvo presente en la comisión, se ha propuesto al Pleno que acepte la adhesión.

Josu: es para formar una red y un paso más en la sostenibilidad, nos sumaremos al proyecto de varios ayuntamientos, es una adhesión y supondrá el desarrollo de varias propuestas y nuevos proyectos, hay que nombrar a dos responsables, el político y el técnico. En la Comisión se propone que el responsable político sea el presidente, Josu Ezkurdia Santa María, y el responsable técnico, Saioia Alzua Galparsoro.

Néstor: nosotros también estábamos de acuerdo, al tratar el tema de la técnica de medio ambiente, en que hay una carga importante de trabajo en el museo, y se consultó si se iba a impulsar este tema con los departamentos de Educación y Cultura, no sé si habéis podido hacer algo.

Josu: ya se habló de que esa carga de trabajo viene de un proyecto del Departamento de Educación, el Ayuntamiento se implicó cada vez más y, a día de hoy, el Departamento de Educación no apoya ese proyecto de cara al futuro y el Ayuntamiento no ve claro si tiene que asumir toda la carga o no, es una reflexión que hay que hacer como Ayuntamiento, aquí se ha hecho y nosotros todavía no lo hemos hecho, y el siguiente paso será tomar una decisión, reflexionar y decidir entre todos.

Néstor: nuestra propuesta es estar con los departamentos de Cultura y Educación para saber cómo ven este tema.

Josu: no, no hemos estado, pero, hasta lo que conocemos, no tienen intención de designar otra persona para ese puesto, nosotros también tendremos que reflexionar antes de estar con ellos, a ver si continuamos o no con ese proyecto, hay otros proyectos más importantes y los recursos son limitados, no hemos estado con el Departamento de Educación, ni vamos a estar.

Alcalde: dentro del proceso de estabilización aprobado en el pleno de mayo se aprobó la plaza de técnico de medio ambiente. En realidad, tenemos un técnico de medio ambiente y creo que coincide con el tema que nosotros tenemos aquí encima de la mesa. Otra cosa es que dentro del museo haya un proyecto pedagógico del Departamento de Educación en el que el Departamento de Educación tiene mucho que decir, el trabajador liberado para ello lo desarrollaba y el técnico municipal de medio ambiente colaboraba en ello. El caso es que el Departamento de Educación contratará este año una persona a jornada completa y, el siguiente, a media jornada, y a partir de ahí no contratará personal. Por nuestra parte, antes del 31 de diciembre de 2022 determinaremos el proceso de selección del técnico de medio ambiente, y en el plazo de dos años estará designado.

Néstor: estamos totalmente de acuerdo, ahí hay un tema importante, hay mucha carga de trabajo, tendremos el compromiso de hacer un plan de transición energética, habrá que ver qué acciones hay que priorizar, ese puesto es muy importante. Hay que dar importancia a esta iniciativa museística, hay que priorizarla. Por eso, a pesar de que Cultura y Educación no



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

pongan recursos, hay que saber si dan por bueno ese puesto para ver qué alternativa se puede encontrar entre ambos.

Alcalde: Estamos confundiendo, el departamento de Cultura no tiene conocimiento de este liberado del museo, no sabe nada, el liberado ha sido del departamento de Educación. El liberado ha estado al margen de la organización interna. Con temas de historia, de cómo ha evolucionado el museo en el desarrollo, y en realidad en la educación infantil no se aborda este tema, la liberación ha sido aprobada por el Departamento de Educación, y la liberación de esta persona no la tiene que decidir el Departamento de Educación, no va a ser un técnico de cultura, el proyecto pedagógico del Departamento de Educación tiene que ver con el desarrollo del museo a media jornada en 2022, por lo que tenemos que diferenciar los conceptos: técnico de medio ambiente para desarrollar los proyectos del ayuntamiento, y el personal liberado por el Departamento de Educación en 2022 a jornada completa. Una cuestión es lo que nos gustaría y otra, qué recursos personales tenemos.

Néstor: no creo que me esté confundiendo, estoy haciendo una propuesta, lo dicho en su momento, hay un patrimonio cultural y sería una oportunidad conciliar cultura y educación desde el punto de vista y ver hasta dónde podemos trabajar en colaboración.

Alcalde: nos estamos enredando, el departamento de Cultura no tiene conocimiento de este liberado del museo, no sabe nada, el liberado ha sido del departamento de Educación. El liberado ha estado al margen de la organización interna. Teóricamente, con temas de historia, y de la evolución que ha tenido el museo de Eskoriatza en su desarrollo, y en realidad en la educación infantil no se trata este tema, el Departamento de Educación ha aprobado esta liberación, y el Departamento de Cultura no lo sabe, la liberación de esa persona la tiene que decidir el Departamento de Educación, no es un técnico de cultura, sino alguien que tiene que ver con el proyecto pedagógico del Departamento de Educación, relacionado con el desarrollo del museo, por lo que tenemos que diferenciar los conceptos: técnico de Medio Ambiente, para desarrollar los proyectos del Ayuntamiento y el trabajador liberado del Departamento de Educación, a jornada completa el 2022, y a media jornada en 2023. Una cosa es lo que nos gustaría y otra, qué recursos de personal tenemos.

Néstor: no creo que me esté confundiendo, estoy haciendo una propuesta, lo dicho en su momento, hay un patrimonio cultural y sería una ocasión para trabajarlo conjuntamente desde el punto de vista cultural y educativo y ver hasta dónde podemos ser capaces de trabajar conjuntamente.

De conformidad con la propuesta de la Comisión de Urbanismo, Movilidad y Medio Ambiente, se aprueba lo siguiente con el voto favorable de todos:

Primero: adherirse al Acuerdo para impulsar la Acción Local Sostenible y la Agenda Local 2030 a través de Udalsarea 2030 – Red Vasca de Municipios Sostenibles y designar al Alcalde para la firma del presente Acuerdo.

Segundo: Nombrar a Josu Ezkurdia Santa María como responsable político y a Saioa Altzua Galparsoro como responsable técnico.

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2.- EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS 16/2022

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos N° 16, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO**.

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y con el voto a favor de todos corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 16 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

Partida de gastos	Descripción	Créditos		
		Actuales	Modificaciones	Definitivos
1 0300.480.231.30.01 2022	SUBVENCIÓN: PLAN DE EMERGENCIA	65.000,00	15.000,00	80.000,00
1 0400.214.330.00.01 2022	MANTENIMIENTO: ESCENARIO DE CULTURA	0,00	4.000,00	4.000,00
1 0100.622.337.10.02 2022	BAR DE LOS JUBILADOS: HUMEDAD	15.000,00	40.176,19	55.176,19
1 0200.226.920.00.99 2022	OTROS GASTOS: ADM. GENERAL	4.000,00	5.000,00	9.000,00
1 0200.227.920.00.07 2022	ESTUDIOS, TRABAJOS TÉCNICOS: ADM. GRAL.	6.570,00	12.800,00	19.370,00

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1 0100.210.153.20.01 2022	MANTENIMIENTO: PAVIMENTO DE VÍAS PÚBLICAS	10.000,00	20.000,00	30.000,00
TOTAL		100.570,00	96.976,19	197.546,19

Cod.	Partida	Descripción	Cantidad
a	2 0200.870.000.00.01 2022	REMANENTE DE TESORERÍA: PARA GASTOS GENERALES	96.976,19
FINANCIACIÓN TOTAL			96.976,19

DESCRIPCIÓN DE CÓDIGOS

- a) Remanente de tesorería para gastos generales.
- b) Remanente de tesorería para gastos con financiación vinculada
- c) Nuevos o mayores ingresos.
- d) Baja de anulación de créditos.
- e) Operaciones de crédito

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

3.- FIESTA LOCAL PARA EL AÑO 2023



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Por unanimidad se acuerda RATIFICAR la propuesta de la Alcaldía de fijar el 29 de junio como festivo local para el año 2023.

4.- DECLARACION INSTITUCIONAL.: GIPUZKOA, POR UNAS FIESTAS LIBRES DE VIOLENCIA MACHISTA SEXUAL CONTRA LAS MUJERES.

El Alcalde informa que representantes de los Ayuntamientos de Gipuzkoa se reunieron en San Sebastián para realizar una declaración a favor de unas fiestas libres de actitudes machistas y contra la violencia sexual hacia las mujeres, en la que se leyó una declaración consensuada con los técnicos y políticos municipales.

A continuación, el Alcalde procede a la lectura del texto de la declaración.

Para ser una declaración institucional es necesaria la adhesión de todos los grupos municipales. El texto de la declaración institucional fue distribuido a todos los grupos y sólo uno ha respondido, el PNV. El Alcalde cede la palabra al resto de grupos.

Leire: entendía que el marco para presentar el tema era el pleno municipal y por ello no hemos respondido previamente, pero Elizateak se suma a la declaración.

Josu: nosotros nos sumamos a la declaración. Por un lado, estamos de acuerdo con el texto, y también es muy importante que se haya trabajado a nivel de Gipuzkoa, y que los alcaldes de los ayuntamientos lo han aceptado dejando fuera las ideologías de los partidos. Y, por otro, el texto es muy importante, así como la forma en la que se ha trabajado, para afrontar este problema.

Néstor: como se indicó que se iba a presentar en el Pleno, no hemos contestado. En el documento no se pedía respuesta. He consultado el procedimiento y la declaración institucional debe aprobarse en primera instancia, con votación, si se incluye o no en el orden del día, si no se ha consultado previamente en las comisiones. ¿Eso es así? Aparece en el ROM.

Secretaria: no

Nestor: En el procedimiento consta que es así, y si no se ha tratado en comisión con una simple votación en el pleno se incluiría este punto en el orden del día.

Alcalde: la declaración institucional la puede solicitar el alcalde solicitando su opinión a cada portavoz, y si hay consenso en las opiniones puede expresarse como declaración institucional, mientras que en el caso contrario sería una moción de un partido. La declaración puede provenir de la Alcaldía o de un grupo; en este caso, el impulsor de esta declaración es la Alcaldía.

Josu: si es una cuestión de procedimiento, no veo ninguna razón para hacer dos votaciones; si esa es la solución, haremos dos votaciones.

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Néstor: una cosa es el procedimiento y, otra, contrastar la declaración con los agentes del municipio; agradecería que se diera la palabra a los agentes, varios de ellos aquí presentes y dispuestos a hablar. La declaración ha sido leída íntegramente, hay varias del 8 de marzo que también se han leído, y quisiera dar la enhorabuena porque se haya leído también hoy.

Josu: ¿votamos la inclusión del punto en el orden del día?

Alcalde: yo no tengo ninguna duda, pero primero votaremos; y sobre la participación ciudadana quiero recordar que es un pleno extraordinario y no se podría, pero, como en otras ocasiones, se dará la palabra.

En primer lugar, se somete a votación la inclusión del asunto en el orden del día, que se aprueba por unanimidad. Se ha realizado una segunda votación para su aprobación como declaración: PNV y ELIZATEAK han votado a favor y BILDU se ha abstenido. Por lo tanto, no puede ser aceptada como declaración institucional.

El Alcalde cede la palabra a la ciudadanía:

Asociación Guerreras Alto Deba (AGAD): nos hemos reunido con las feministas jóvenes y las feministas de Eskoriatza y nos ha parecido interesante este punto y queremos hacer las siguientes aportaciones:

- Punto lila en el programa de fiestas de los sanpedros: según el programa de fiestas, no habrá servicio de punto lila algunos días, el horario del punto lila también es raro porque casi todos los conciertos comienzan a partir de las 22:00 horas. Cuestionamos la forma de actuación del Ayuntamiento: ¿qué se debe de hacer si hay alguna agresión fuera del horario del punto lila? ¿Hay servicio telefónico 24 horas?
- Vemos la necesidad de contratar a una técnica de igualdad.
- ¿El Ayuntamiento está impartiendo o va a impartir formación en violencia de género a agentes públicos?

Eskoriatzako Talde Femenista (ETF): Nos hemos reunido con AGAD y las feministas jóvenes de Eskoriatza. Este tema no es de circunscribirse a las fiestas, como declaración institucional está bien, pero en el caso de Eskoriatza es un tema para trabajar todo el año. Nos gustaría trabajar una propuesta: contar con una técnica de igualdad como en Aretxabaleta para poder trabajar el tema en todos los ámbitos con todos los agentes: educación, gazteleku...

En la declaración aparecen varios puntos y nos gustaría saber qué recursos tiene el Ayuntamiento para trabajar estos compromisos, cuáles son sus intenciones.

En cuanto a las fiestas, ¿cuál es el objetivo del punto lila? Además del horario, ¿qué recursos se van a poner? ¿Un teléfono? ¿Cómo se ha trabajado este protocolo?, ¿Se ha difundido?, ¿Dónde estará expuesto? Las jóvenes feministas han elaborado un protocolo en las txosnas, lo del punto morado no se ha trabajado junto con dicho protocolo, pero de cara al futuro se ve conveniente contar con estos grupos para ello.

Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria
2022/06/21



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

El tema es importante y debería ser compartido con los agentes del pueblo que han mostrado sensibilidad hacia el tema y que están trabajando en el tema.

Josu: aceptamos las propuestas, vosotros conocéis los problemas de primera mano, nosotros traemos los temas trabajados al pleno, los trabajamos en comisiones de áreas. Dicho esto, el punto lila que se recoge en el programa de fiestas no está muy claro o falta concretar las cosas. Antes de las fiestas hay una comisión informativa, donde se comentará para concretar algunos aspectos.

Alcalde: primero, no será una declaración institucional, el Ayuntamiento no adoptará una posición institucional. Dos partidos han votado a favor de la declaración y otro grupo se ha abstenido. En segundo lugar, se organiza una comisión abierta para la organización de las fiestas, se trabajan todas las propuestas y se intenta materializar la mayoría de las propuestas, las que están en el programa festivo son las trabajadas en dicha comisión. En cuanto al horario, ha habido acuerdo entre los técnicos. En cuanto a la difusión, se ha anunciado por nota de prensa, en el programa festivo, en el programa repartido por los hogares. En cuanto al teléfono, aparece el teléfono que presta servicio las veinticuatro horas. El Ayuntamiento de Eskoriatza dispone de los medios de los que dispone, pero este teléfono está disponible 24 horas. Todas las actividades incluidas en el programa de fiestas han sido trabajadas en comisión.

ETF: Lo de limitar el tema del punto lila a las fiestas no es nuestro objetivo, hay que trabajarlo todo el año en las comisiones; los agentes estarían dispuestos a acudir a otras comisiones. El protocolo que han elaborado los jóvenes es para las fiestas, pero luego también puede servir de cara al futuro. Nos gustaría que este tema lo trabajara un técnico, no hay recursos de personal, hay un técnico de prevención, pero no tiene formación en temas de género.

AGAD: nosotros estamos veinticuatro horas atendiendo a las víctimas, ayudamos a una víctima a la semana, también hay casos en Eskoriatza, las víctimas quieren recibir ayuda al momento, aunque luego llamen al 112. También queremos preguntar si la persona que va a estar en el punto lila está preparada para atender a las víctimas.

Alcalde: ¿por qué se preguntan si la persona que va a estar en ese punto lila va a tener formación? Entiendo que se cuestione el horario reducido del punto lila, pero dudar sobre la formación de los técnicos no lo entiendo, el punto lila se ha consensuado entre la técnica municipal y los técnicos del punto lila. Se sobreentiende que el técnico del punto lila tendrá formación.

AGAD: ha sido una pregunta, tiene que ser un espacio seguro y la persona que está allí tiene que tener formación. El punto lila que aparece en el programa de fiestas es escaso.

Sólo preguntamos si la persona que estará en el punto lila pertenece a una empresa especializada. La zona segura se contrata por dos horas y todos los conciertos comienzan a partir de las diez de la noche.

Maite Uribe: entendemos que la persona que va a estar en el punto lila va a tener formación



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

sobre género, no es cosa de Eskoriatza, también se contrata en otras localidades, y entendemos que los técnicos que están en el punto lila tienen formación, no lo cuestionamos.

AGAD: Primero tenemos que saber eso: si la persona que va a estar en el punto lila va a estar preparada para atender a una víctima. Nosotros sabemos quiénes serán las personas que estarán en Arrasate en el punto lila, son personas con formación, es una empresa especializada, solo queremos saber eso. Nos parece muy escaso el horario de la zona segura. Además, el 29 de junio hay conciertos, y no hay un punto lila. Las que hemos sido víctimas tenemos otra sensibilidad, la importancia de recibir la ayuda adecuada en el momento la entendemos las que hemos sido víctimas, por eso insistimos en la formación de los técnicos del punto lila, porque la Ertzantza tampoco está preparada.

Josu: primero expresar nuestra tristeza, no hemos sido capaces de aprobar la declaración institucional; segundo, son muy importantes las aportaciones realizadas, trabajamos en comisiones, ahora las aportaciones recibidas se trabajarán en comisiones con las realizadas por nuestros técnicos y de otras instituciones.

Néstor Arana: para aclarar, nuestra abstención se debe a que el debate es éste mismo, has señalado que los temas se tratan en comisiones, pero casualmente este no, y también se solicitará si se ha hecho bien procedimentalmente, porque el tema necesita una elaboración con nosotros y está claro que los grupos que están aquí están muy sensibilizados y hay que contar con ellos, yo no me quedaría con ese sentimiento de tristeza, el tema hay que trabajarlo y a ver si se trabaja para el próximo ocho de marzo, se lee un texto el ocho de marzo y se organizan actividades, no queremos dar un sí sin contenido a un mensaje general.

AGAD: Lo de la declaración institucional está bien, pero los datos indican que el tema es muy serio, queremos que esa declaración y todas las demás se materialicen de alguna manera: contar con un técnico con formación en género para tratar el tema del género a lo largo de todo el año.

El alcalde ha finalizado dando las gracias al público presente.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:45 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.